

Elkargoa

tzen ditu eliztarrak. *Bataioaren bidez bihurtzen da fededuna eliztar, eta Elizako eskubide eta eginbideak ditu, *eskomikuaren bidez elkartetik kanpora botatzen ez duten bitartean.

Teologia katolikoaren arabera, hiru egoera ezberdinetan daude eliztarrak: a) Zeruan betirako salbatuak (Eliza garailaria edo zeruko Eliza); b) Garbitokian, beren bekatuetatik garbitu beharrean dauden hildakoak (Eliza garbilaria edo sufrikariozkoa); c) Lurrean bizirik dirauten fededunak, nahiz eta bekatupean egon (Eliza gudaria edo lurreko Eliza). Ik. Zerua; Garbitokia.

2. Berezikiago erabiltzen da eliztarra hitza *parrokia edo lekuko Eliz elkarteko kideak adierazteko.

Elkargoa

Ik. Elkarte, 1.

Elkargo Berria

Ik. Itun Berria.

Elkargo Zaharra

Ik. Itun Zaharra.

Elkargoaren harlosak

Ik. Legearen harlosak.

Elkarreza

Kontzelebrazioa esango genuke, latinetik harturik. *Meza da, zenbait apaizen artean emana, gorputz gisa jokatzeko dutela: Erdiko otoitz nagusiak denek batera esaten dituzte. Denek apaiz eta mezemaille gisa parte hartzen badute ere, bat izan ohi da burua.

Eliza mendebaldirrean ia erabat galdua zegoen azken Kontzilioa arte; ordutik honera oso zabaldu da.

Elkarrizketazko teologia

Ik. Teologia apologetikoa.

Elkartasuna

Orokorki, hainbatek gauza berean partaide izatea adierazten du; eta alde horretatik, kidadetasuna eta batasuna ere esaten da. Ez da berez erlijio alorreko hitza; baina erlijiozko hizkerak bereziki erabiltzen du *fede eta erlijio berekoen arteko kidadetasuna, batasuna eta elkarrekiko eragin izpirituala adierazteko. Fedezko gogaidetasunak, *erlijiozko partaidetzak eta jainko-misterio berberetan esku-hartzeak gauzatzen eta mamitzen dute funtsean erlijiozko elkartasuna. Elkartasun horren gain eraiki ohi da

erlijio-bazkunaren edo *elkartearen erakunde soziala.

*Opariari loturik dago elkartasuna kontzeptua erlijioen historian. Oso ezaguna da *elkartasun-oparia: hil den oparigaiaren parte bat erre egiten da, Jainkoaren eskuean utziko bailitzan, eta beste partea, erlijiozkoen esku hartzen dutenen artean jaten dute. Erritoko otordu hori Jainkoaren eta fededunen arteko elkartzea da.

Bide beretik ulertzen du S. Paulok *azken afariaren oroitzapena, eukaristian edo *aldareko sakramentuan egiten dena: *oparia da hori, eta Kristoren gorputz-odolak hartzeak Jainkoaren eta fededunaren arteko koinonia = elkartasuna sortzen du. Horregatik *jaunartzea elkarbidea da: "komunioa". Kristautasunarentzat erlijioaren helburu osoa da fededunaren eta Jainkoaren arteko elkartasuna, zeina jainkozko bizian partaide izatearen gisan ulertzen bait du teologiak. Areago, kristautasuna bera batzutan Elkargo Berria izendatzen da: hau da, Jainkoak bere "Herri berri" Elizarekin egin duen elkartasun edo itun instituzionaldua. Elkargo Zaharra, horren arabera, Jainkoak Israel Herriarekin egindakoa da.

*Ituna eta elkargoa berdindu egiten dira, beraz, batzutan; hala ere, kristau-teologiaren arabera, Elkargo edo Itun Zaharra beretu egin du, batetik, Itun edo Elkargo Berriak, baina, bestetik, gainditu egin du, batez ere Jainkoaren eta gizon-emakumeen elkartasuna pertsonaldu, izpiritualdu eta unibertsaldu egin duelako.

Horren ondorioa eta agerpidea da fededunen arteko elkartasuna, Jainkoarekiko elkartasunean eta *maitasunean oinarritzen dena. Horregatik, hortik sortzen eta eratzen den bazkuna edo Eliza, beronen maila guztietan, izendatzeko eta definitzeko hitz erabilienerarikoa elkarte da. Sarritan Eliza banandu eta ezberdinen izen propioetat ere erabiltzen dute elkarte edo *komunioa: Anglikanoa, lutertarra, etab.

Ik. Elkarte; Ituna; Itun Zaharra; Itun Berria; Eliza.

Paulo Agirrebaltzategi

Elkartasun-oparia

Odolezko oparia izan ohi da, non oparigaiaren parte bat erreaz suntsitu egiten bait da eta beste partea jan egiten esku-hartzaileen artean, Jainkoarekiko *elkartasuna eta batasuna adierazteko eta gauzatzeko utzez eta asmoz.

Horrelatsu ulertzen du eukaristia (opa-